



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 4koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Elantxobeko (Bizkaia) Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua ematen duena.

AURREKARIAK

2018ko otsailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak Elantxobeko portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera egin zuen, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin bat etorritz.

Eskaeran Planaren zirriborrea, legeria sektorialean eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa jasota daude.

2018ko martxoaren 6an, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren, Plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenaren 9. artikuluan ezarritako kontsulten tramitea egin zen. Administrazio publiko eta pertsona interesdun hauei egin zien kontsulta ingurumen-organoak:

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia
- Kultura eta Kirol Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia
- Euskal Herriko Itsasertz Mugapea
- Elantxobeko Udala
- Gernikako Ekologi Lan Taldea
- Zain Dezagun Urdaibai
- Ekologistak Martxan, Bizkaia

Bestalde, data horretan bertan, eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen eskura jarri ziren -Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean- planaren zirriborrea, legeria sektorialak eskatutako dokumentuak eta hasierako dokumentu estrategikoa, planaren gainean interesa leukaketenak identifikatzeko.

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren -biak Eusko Jaurlaritzarenak- eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritza Orokorren (Kultura Ondarearen Zerbitzua) erantzuna jaso da, eta hark espedientean adierazten den emaitza izan du.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen irismen-dokumentua egiteko behar adina judizio-elementu bazeudela ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua araber.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, eta ingurumenaren babes-maila handia bermatzea, garapen jasagarri bat sustatzea helburu.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egiten dela ingurumen-inpaktuen azterketa,



hautabide egokienak aukeratu ahal izateko, eta betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, administrazio publiko batek abian jarritako edo onetsitako planei eta programei ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar zaie, bai eta haien aldaketei ere, lege- edo arau-xedapen batek beharturik prestatu eta onartu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute eta arlo jakin batzuei erreferentzia egiten badiete, hala nola hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduari eta lurzoruaren erabilerari.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) letran jasotako planei dagokienez, eta plan horien artean sartzen da Elantxobeko Portuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen du zer dokumentu erantsi behar zaizkion hasierako eskabide horri, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez dionetan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterlan estrategikoaren edukari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukari eta ingurumen-jasangarritasun txostenaren edukari buruzkoak, hurrenez hurren.

Hona arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostena aztertu da eta hauek guztiak ikusi dira: otsailaren 27ko 3/1998 Legea Orokorra (Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa), abenduaren 9ko 21/2013 Legea (Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa), urriaren 16ko 211/2012 Dekretua (planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena), apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua (Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena), urriaren 1eko 39/2015 Legea (Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidearena) eta urriaren 1eko 40/2015 Legea (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa) eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Elantxobeko Portuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) ingurumen-azterketa estrategikoari buruzko irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorenetarako bakarrik eta honako baldintza hauetan:

1.- Planaren xedea

Elantxobeko Portuaren HAPBak Elantxobeko Portuaren Jabari Publikoaren mugen barnean sartzen den eremua guztiz antolatzea du helburu. Antolamendu horren barnean sartzen dira ur-azala, ainguratzeko eta atrakatzeko lekuak, kaiak eta ditxoak, bide-sarea, eraikinak eta hiri-zerbitzuak eta azpiegiturak, eta mugen barnean ezarri daitezkeen gainerako guztiak.

HAPBaren helburuen artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- Portuaren barne-komunikazioetarako gaur egungo sistema berrikustea.
- Oinezkoentzako sarbideak eta ibilbideak mantentzea eta zaintzea.
- HAPOn komunitate edo kirol arloko ekipamenduaren sistema orokor gisa kategorizatutako eraikinentzat aurreikusten den eraikuntza-erregimena finkatzea, eta erabilera zehatuaren erregimena ezartzea.
- Portuko babes-baldintzak, zuzkidurak eta eraginkortasun funtzionala hobetzeko jarduketak.
- Eremuaren barnean sustatutako urbanizazio-jarduketek bete behar dituzten gutxieneko kalitate-baldintzak eta zerbitzu-mailak ezartzea.
- Portuko ingurumen-kalitatea hobetzeko jarduketak sustatzea.



Hori guztia lortzeko, hainbat jarduketa proposatu dira:

- Zonen eta azpizonen zonifikazioa: 7 zona bereizten dira (itsasora joateko zona-ur-azala, lehorreko sarbide-zona-ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bidezkotasuna, ekipamendu-erabilerarako eta portu-zerbitzuetarako zona, portuko zerbitzuen eta azpiegituren zona, hiri-azpiegituren zona, egoitza-zona eta espazio libreen zona).
- Iparraldeko kai-muturra 32 m inguru luzatzea, kanpoko olatuen aurrean gehiago babesteko. Gaur egungo buia-sistema ordeztzea eta itsasontziek porturatu ahal izateko pantalanak instalatzea.
- Barneko ditxoan lurrazala handitzea, bide-sarera bideratutako eremua handitzeko eta zona horretako trafikoa antolatzeke helburuarekin, zona batzuetan oinezkoentzako erabilera gaituz.
- Udal-kiroldegira bideratutako eraikinaren hirigintza-eraikigarritasuna handitzea.
- Zerbitzu-sareak ezartzea aurreikusten da, erregai-zerbitzuaren aukera barne.

2.- Ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentuaren edukia:

Ingurumen-azterlan estrategikoak barne hartu beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako edukia, eta hori urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren (plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena) II. eranskinean jasotzen denarekin osatu beharko da.

Eremuaren ezaugarriak eta garatu nahi diren jarduketak kontuan izanik, gai hauek jasoko dira, besteak beste:

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Espedientean agertzen den dokumentazioaren arabera, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legea onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 56. artikuluan jasotzen da Plan Berezi bat idatzi beharra. Haren arabera, Portu Sistema Orokorra Plan Berezi baten edo Portu Agintaritzak formulatutako hirigintza-erreminta baliokide baten bitartez garatu beharko da.

Era berean, Lurzoruaren Legean ezarritako hirigintza-prozesua bete beharra jasotzen da Plan Orokorrek mugatutako planeamendu-eremuen kasuan, horien kasuan antolamendu xehaturik finkatzen ez denez, hura Plan Berezira mugatuta geratzen baita. Justifikazio hori behar bezala berresten da Elantxobeko HAPOren bitartez, Hirigintza Araudiaren 136. artikuluan.

Momentura arte aurkeztutako dokumentazioan proposatzen diren helburuak bat datoz aplikatu beharreko lurralde- eta hirigintza-araudiaren xedapenekin.

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Elantxobeko portuaren HAPBk nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; nagusiki, 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programako helburu estrategikoak eta jarduketa-lerroak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Horrez gain, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutakoak jaso beharko ditu.

Aurrekoaz gain, honako hauek ere hartu beharko dira kontuan:

- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- EAEko Garapen Jasangarrirako Ingurumen Estrategia (2002-2020).
- EAEko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.
- 2050erako Klima Aldaketaren EAEko Estrategia.
- Urdaibaiko EKZP.
- Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako garapen jasangarriko printzipioak (Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen du Dekretuak).
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera ezarritako kalitate akustikoko helburuak (EAEko hots-kutsadurari buruzkoa da Dekretua).



Besteak beste, ingurumen-helburu estrategiko, printzipio eta jasangarritasun-irizpide hauek aplikatuko dira Elantxobeko HAPBa egiteko:

1. Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta leheneratzea, ekosistemek ematen dizkiguten zerbitzuak zainduz. Biodibertsitatearen galera geldiaraztea.
 - Udalerriko biodibertsitatea babestea, horretarako biodibertsitatearen osagaiak modu jasangarrian erabiltzen direla zainduz, ingurumenaren baliabideen erabileratik ateratako etekinetan parte-hartze justua eta bidezkoa lortzeko.
 - Kontserbazio-eskakizunak, erabilera jasangarria eta natura-ondarearen hobekuntza eta leheneratzea eta biodibertsitatea hirigintzako plangintzan integratzea, ingurumena babestea hirigintza-antolamenduaren gainera lehenesteko legezko printzipioa kontuan hartuta.
 - Habitaten eta populazio biologikoen galera eta degradazioa gelditzea, eta horien kontserbazio-egoera hobetzea, lurralde erresiliente eta multifuntzional baterantz aurrera egiteko.
 - Ondare geologikoaren kontserbazioa indartzea, eta, horretarako, ondare hori hirigintzako plangintzan eta ingurumena prebenitzeko prozeduretan txertatzea.
 - Saihestezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
 - Ur-ekosistemak babestu eta hobetzea, bertako baliabideak kontuan izaten dituzten konponbideak lehenestea eta energia kontsumitzeko beharrak ahalik eta gehien gutxitzea.
 - Natura-ingurunearen kontserbazioa eraginkortasunez integratzea sektore-politiketan (EAEko IV. Ingurumen Esparru Programa 2020. 1.1. jarduera-ildoak).
 - Natura Gune Babestuen Sarean eta Natura 2000 Sarean sartzen diren eremuak kontserbatzea (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2f artikulua).
 - Batasunaren intereseko habitatei arreta berezia eskaintzea. Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21koa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa.
 - Babestea lehenesteko banaketa-eremuak, interes bereziko eremuak eta mehatxupean dauden landare- eta animalia-espezieen eraldaketaren mendeko eremuak, Kudeaketa Plana izan edo ez (Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 54. artikulua).
 - Lurraldearen harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera emango duen eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egitea. IHOBERen Hirigintza Plangintza Jasangarritasun Irizpideekin Idazteko Eskuliburua. (2.1.1. Baliabideak eta hondakinak: lurzorua kontsumoa).
 - Paisaiaren faktorea udal-plangintzan txertatzea (Lurzorua legearen testu bategina onartzen duen 2008ko ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.2 artikulua). Lurraldearen gaineko esku-hartzeak modu egokian integratzea paisaian; batez ere, azpiegiturei eta ekonomia-jardueretarako eremuei dagozkien esku-hartzeak. (Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko 2014ko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuko 2.e artikulua).
2. Egungo belaunaldien beharrak ziurtatuko dituen garapen jasangarria bermatzea, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrei aurre egiteko ahalmena arriskuan jarri gabe.
 - Lurzorua okupazioa moteltzea, eta horretarako lehendik artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera lehenestea, degradatutako espazioen biziberritzea eta berrerabilera bultzatzea, eta balio agrolotiko eta natural handia duen lurzorua urbanizaziotik babestea.
 - Pertsonen eta salgaien mugikortasun jasangarriko hiri-ereduak bultzatzea.
 - Hiri-segregazioa, hiri-barreialdura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzorua erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentsu, trinko eta konplexuen bidez.
 - Ingurumen-eraginak minimizatzea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz.
 - Landa-ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea, nekazaritzaren eta ingurumenaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz.

- Lurraldeko energia, ura, hondakinak eta lurzoruen erabilera arduratsua sustatzea.
3. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.
- Intermodalitatea eta berotegi-efektuko gas-isurpen gutxiagoko garraiobideak bultzatzea.
 - Klima-aldaketarekiko erresilientea, konpaktua eta erabilera mistoa den hiri-egitura bultzatzea.
4. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.
- Arrisku naturalak dituzten lurzoruen urbanizazioa geldiaraztea (uholdeak, akuiferoen ahultasuna, erosioa).
 - Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioekin bat etorritik, airearen kalitatea ziurtatzea bai kanpoan bai barnean (zarata barne), eta zarata handiekiko esposizioa duen biztanleria murrizten dela bermatzea.
 - Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuz.
- Lurraz edo baliabide naturalez baliatzerakoan, ur-masak eta urarekin zerikusia duten ekosistemak errespetatzen direla bultzatzea.
 - Udalerriko paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.

Azaldutakoa kontuan hartuta, ingurumen-azterlan estrategikoak era espezifikoan justifikatu beharko du Elantxobeko Portuko HAPBak nola ezartzen dituen aurrez azaldutako ingurumen-helburuak eta nola laguntzen duen hirigintzako antolamenduak ingurumenari dakartzkion ondorio negatiboak gutxitzen.

B. Ingurumen-ebaluazioaren eremu geografikoa

Plan Bereziaren eremu geografiko aplikagarriak Elantxobeko Portuko Jabari Publikoaren mugen barnean sartzen den eremuaren antolamendu integrala egitea du helburu. Horrela, bada, muga horien barnean sartzen dira ur-azala, ainguratze- eta atrakatze-lekuak, kaiak eta ditxoak, bide-sarea, bertan dauden hiri-eraikinak eta -zerbitzuak eta azpiegiturak, eta haren mugen barnean ezar daitezkeen gainerako guztiak.

C. Ingurumenaren aldetik garrantzitsuak diren eremuak

Elantxobeko udalerrriak babestu beharreko ingurumen-balioak dituzten hainbat eremu eta gune ditu babeserako lege-erreminta, katalogo eta inbentario desberdinetan jasota, honako hauek, esaterako:

- Elantxobeko udalerrria Urdaibai Biosfera Erreserban dago.
- Natura 2000 Sarearen barruan dauden guneak: HBBE ES0000490 (Mundakako Itsasadarreko eta Ogoño Lurmuturreko itsas gunea), HBBE ES0000144 (Urdaibaiko Itsasadarra), KBE ES2130007 (Urdaibaiko itsasertz eta padurak), KBE; ES2130008 (Urdaibaiko artadi kantauriarrak).
- Batasunaren intereseko habitatak dituzten eremuak (92/43/EEE Zuzentarauaren I. eranskina), Batasunaren intereseko itsas habitatak barne: HAPBaren exekuzio-eremuan, 1170 "Arrezifeak" deituriko Batasunaren intereseko itsas habitata gaineratzen da.
- Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartzen diren flora- edo fauna-espezie mehatxatuen banaketarako interes bereziko eremuak: udalerrriaren barnean, babes bereziko eremuak daude fauna-espezie mehatxatu batzuentzat (*Lacerta schreiberi* Schreiber muskerra, baso-igel iberiarra, belatz handia, arrano arrantzalea, kiroptero-espezie mehatxatuak...); gainera, Planaren jarduketa-esparruarekin muga egiten duten Ogoñoeko itsaslabarretan bizi dira, besteak beste, ubarroi mottoduna¹ (*Phalacrocorax aristotelis*) eta ekaitz-txori txikia² (*Hydrobates pelagicus*), EAEn bakan gisa katalogatutako hegaztia.
- EAeko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan dagoeneko bildu diren guneak.

¹ 112/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, "ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*)" hegaztiaren kudeaketa-plana onesten duena eta hura espezie arrarotzat hartzen duena eta hura babesteko neurri espezifikoak behar direla ezartzen duena.

² 116/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, espezie arraroa den eta babes-neurri bereziak behar dituen aldetik "Ekaitz-txori txikia (*Hydrobates pelagicus*)" hegaztiaren kudeaketa-plana onesten duena.

- Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana.
- Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan ezarritako hegazti mehatxatuentzako beste gune interesgarri batzuk. Agindu horren bidez, mehatxatuta dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko diren.
- EAEko Korridore Ekologikoen Sarean gaineratutako eremuak: udalerraren zati handi bat EAEko Korridore Ekologikoen Sarean sartuta dago. Eskualde-mailako korridorea Urdaibaiko artadi kantauriarren zati bati egokituko litzaioke; era berean, horiek Urkiolako Korridorea - Urdaibaiko artadi kantauriarrarekin eta Arnoko Korridorea - Urdaibaiko artadi kantauriarrarekin konektatzen dute. Elantxoben, gune-eremuak, lotura-korridoreak eta moteltze-eremuak ditugu.

Ingurumenaren aldetik garrantzitsutzat jotzen diren eremuak dira, halaber, balio agrologiko handiko lurzorua, itsas-lehorreko jabari publikoa, lurralde-plangintzatik (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) edo plangintza sektorialetik (Itsasertzeko LPS, Bizkaiko Errepideen LPS) eratorritako babes-erregimen bat duten naturaguneak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidaleroetako (LAG) Interes Naturalistatikoko Guneen zerrendan eta EAEko Naturagune Garrantzitsuen Katalogo Irekian gaineratutako eremuak, duten paisaia-balioagatik katalogatutako eremuak, EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoaren eta Paisaien Katalogo eta Gidalerroen arabera, interes geologikoko eremuak, ekosistemen zerbitzu-eremuak...

Kultura-balio handia dutenen artean kultura-ondarearen zati direlako kalifikatuta edo inbentariatuta dauden eremuak edo ondasunak daude, bai eta ustezko arkeologia-eremuak ere.

Ingurumen-arrisku garrantzitsuak dituzten edo izan ditzaketen eremuei dagokienez, honako hau aipa daiteke:

- Iparraldeko kai-muturra luzatzeko egin den proposamenak, obretan zehar faunari eragozpenak eragiteaz gain, kalteak eragin diezazkioke portuko itsas inguruneari, fauna bentonikoari, iktiofaunari eta Batasunaren intereseko habitatei.
- Ditzotik gertu gasolindegi bat instalatzeko proposamenak ondorio garrantzitsuak eragin ditzake natura-interes handiko eremuetan.
- Proposamenetan gaineratzen diren obrek eragozpenak sortuko dizkiete ingurunean bizi diren fauna-espezieei, baita itsasertzeko urei eta horietan bizi diren flora- eta fauna-espezieei ere.
- Planeko garapen-eremuan, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen kokaleku inbentariatu bat dago (48031-00002 kodea); beraz, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak aurreikusitakoa aplikatuko da gune horietan.
- Elantxobeko Potuko HAPB idazteko eta garatzeko, aipatutako garrantzi desberdineko guneak izan beharko dira kontuan, baita ingurune fisikoa zuzenean eraldatzen duten jarduketak garatzeko horietatik eratortzen diren baldintzatzaileak ere.

D. Jarduketak egiteko egokiak ez diren inguruak

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, eta haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzen aukera eman beharko du. Atal hau idazteko, gutxienez aurreko atalean aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan.

Bestalde, kontuan izan behar da aurreikusitako jarduera batzuek (biribilgune bat ezartzeko lanek, adibidez) ondorio garrantzitsuak eragin ditzaketela tokiko intereseko ondasunengan; hori dela-eta, antzinako arrantza-portuaren paisaia- eta etnografia-balioak mantentzeko gomendatzen da, ahal den neurrian.

Ingurumen-balioa duten elementuei eragin diezaiaketen jarduketekin lotuta onartu diren arau guztiak izan beharko dira gogoan (Natura 2000 Sareak barne hartzen dituen eremuen adierazpena, HBBE eta KBEak, esaterako, Natura Babesteko Legea, espezie mehatxatuen kudeaketa-planak eta Urdaibaiko EKZP, eta abar).



Planak planteatutako jarduketan garapena baldintza dezaketen beste alderdi batzuk lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen presentziarekin lotutakoak dira.

Gainera, EAeko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren aplikaziotik eratorritako mugak hartu behar dira kontuan, eta alderdi horiek behar bezala aztertu beharko dira Azterlanean.

Jarduketan garapena baldintzatu dezakete, halaber, Kosta Legerian itsas-lehorreko jabari publikoari eta haren babes-eremuari dagozkion lurrei buruz ezarritako mugek eta Bizkaiko Errepedeei buruzko Foru Arauak.

E. Egindako aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten tramitean jasotako txostenetako ingurumen arloko eduki garrantzitsuenak laburbildu dira:

- Ingurumen-azterlan estrategikoak behar bezala aztertu behar ditu HAPBaren ondorioz dinamika sedimentarioan sor daitezkeen kalteak, portuko itsas ingurunean, fauna bentonikoan, iktofaunan eta Batasunaren intereseko habitatetan. Itsasertzeko dinamikari buruzko azterlan: behar-beharrezkoa da HAPBan aurreikusitako jarduketan inpaktuak ebaluatzeko.
- Behar bezala aztertu beharko dira hegazti-faunari eragindako ondorioak, batik bat Ogoñoko itsaslabarretan bizi diren ubarroi mottodunari (*Pharacrocorax aristotelis*) eta ekaitz-txori txikiari (*Hydrobates pelagicus*) dagokienez.
- Modu egokian aztertu beharko dira naturagune babestuei eragindako ondorioak: Urdaibai Biosfera Erreserba, HBBE ES0000490 (Mundakako itsasadarra-Ogoñoko lurmuturra itsas eremua), HBBE ES0000144 (Urdaibaiko Itsasadarra), HBBE ES2130007 (Urdaibaiko itsasertzak eta padurak), HBBE ES2130008 (Urdaibaiko artadi kantauriarrak); aurreikusitako jarduketek gune horien kontserbazio-helburuak konprometitu ditzaketen zehaztu beharko da.
- Elantxobeko Portuaren premiak zehazteko orduan behar bezala hartu beharko dira kontuan klima-aldaketak eragindako ondorioak; era berean, beharrezko egokitzapen-mekanismoak ezarri beharko dira, Klima Aldaketaren kontrako Euskal Estrategia indarrean den epean euskal kostaren jarrera hobetu ahal izateko.
- Xehetasun gehiagorekin aztertu behar da ditzotik gertu gasolindegia bat instalatzeko proposamena, ondorio garrantzitsuak eragin baititzake.
- Jarduera-esparruan, tokiko esparruan babesteko proposamena duten Ondare Kulturaleko hainbat elementu daude; aurreikusitako jarduerak ondorio zuzenak eta kritikoak izan ditzakete elementu horiengan.

F. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ebazpen hau emateko aurkeztu den dokumentazioak Elantxobeko Portuaren Jabari Publikoaren mugen barnean kokatuta dagoen esparrua guztiz antolatzeko jarduketak ezartzen ditu. Bertan sartzen dira ur-azala, ainguratze-gunea eta atrakatzeko lekuak, kaiak eta ditxoak, bide-sarea, eraikinak eta hiri-zerbitzuak eta azpiegiturak, eta mugen barnean ezar litezkeen gainerako guztiak.

Ingurumen-azterlan estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxienezko edukia izango du, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoarekin osatu beharko da. Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren atalek eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekin duten erlazioa.
2. Ingurumenaren egungo egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.
6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez teknikoa.



Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da ingurumen-azterlan estrategikoak (aurrerantzean, azterlana) hurrengo alderdietan sakondu behar duela, gutxienez, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekin duten erlazioa

Azterketan HAPBaren helburu nagusien laburpen txiki bat jasoko da. Halaber, HAPBaren garapenaren ondorioz planteatzen diren gai berriak deskribatuko ditu zehatz-mehatz azterketak, baldin eta ingurumenaren gainean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete (besteak beste, ditxo handitzea edo gasolindegi bat ezartzea). Era berean, hura gauzatzeko aurreikusten diren jarduketak eta garapen-tresnak denboraren aldetik nola planifikatuko diren azalduko da.

Azterketak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan HAPBa idaztean Ebazpen honetako A atalean ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak. Justifikazio hori bai arauetan bai Planean bertan ezarritako adierazle eta mugen erabileran oinarrituko da.

Bestalde, aztertu beharko dira HAPBaren loturak bai hirigintzako antolamenduko beste tresna batzuekin bai HAPOrekin lotura izan dezaketen lurralde-planekin eta plan sektorialekin. Gutxienez, kontuan hartu beharko dira honako alderdi hauek:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) eta LAG horien Berrikuspena.
- Gernika-Lumoko eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- Elantxobeko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan kontuan hartuko dira; bereziki, babes bereziko eta ingurumen-hobekuntzako zonak.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (isurialde kantauriarra).
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.

HAPBaren helburu eta jarduketak eta eremuan eragina duten plan eta programen helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta erlazioa zehaztuko dira.

Halaber, eremuari aplikatu beharreko gainerako planei dagokienez izan daitezkeen bigarren mailako ondorioak, ondorio metakorrak eta sinergikoak identifikatuko dira. Hemen identifikatutako ondorioak, halakorik izanez gero, planaren eraginak identifikatu eta baloratzeko atalean ebaluatuko dira. Baterako helburuak lortzea izango da xedea, eta horrez gain, beste planen helburu eta jarduketa-ildoekiko gainjartze, gatazka edo bateraezintasunak ager daitezkeen kasuetan HAPBaren jarduketarako alternatibak ebaluatzea.

2. Ingurumenaren gaur egungo egoera

Azterketak ingurumenaren gaur egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta HAPBaren berrikuspena egin ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Planaren garapen-eremuaren ezaugarriak eta aurreikusitako jarduketak direla eta, Planaren garapenak eragin ditzakeen ingurumeneko elementu guztiak identifikatu beharko dira.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, baita ebazpen honetako C atalean ingurumenaren aldetik nabarmentzat jotako edozein gunerekin erlazionatutako arazoak ere.

Era berean, lurraldearen ingurumen-unitate homogeenak zehaztuko dira, haien paisaia-ezaugarrien eta natura-baliabideen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, hirigintzako antolamenduaren xede den eremuarekiko eskala proportzionatuan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleak erabilita bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko EUSTAtenak ere, eta txosten honetako aurreko ataletan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.



Kontuan hartu beharko da gaur egungo egoeraren eta, bidezkoa izanez gero, HAPBko eremuaren azalera osoari dagozkion adierazle batzuen arteko aldakuntza; hona hemen adierazle horiek:

- Hiri lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako azaleraren ehunekoa.
- Lurzoruaren artifizializazioa: azalera artifizializatua guztizko azalerarekiko.
- Komunikazio- eta garraio-azpiegituretara bideratutako azaleraren ehunekoa.
- Habitat naturalek, erdi-naturalek eta naturalduet hartzen duten azaleraren ehunekoa.
- Kalitatean edo kontserbazio-egoeran hobera egin duten habitat naturalen azalera.
- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratuta dauden lurzoruen azalera.
- Hala badagokio, tokiko basoaren ehunekoa, guztizko baso-azalerarekin alderatuta.
- Hala badagokio, babes bereziko kategorian sartutako azalera.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berdinak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu zehatzak lortzeko izandako balizko zailtasunak justifikatuz. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterlanak; hala, ingurumena zaintzeko programa aplikatzeko erreferentziako ingurumen-egoera zehaztuko da.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen eragin esanguratsuak

Atal honetan ingurumenean eragin ditzakeen ondorio adierazgarriak aztertu beharko dira, alderdi hauek barne: biodibertsitatea, biztanleria, gizakien osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea (ondare historikoa barne), klima-faktoreak, klima-aldaketan izan dezakeen eragina (bereziki, planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia), ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia. Faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek emandako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Eragin horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak, metaketak, sinergiak, epe labur, ertain eta luzerako eraginak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

HAPBan aurreikusitako ekintzetatik eratorritako gai berriekin bat egin duten planeamendu-ekintzak identifikatuko dira. Bereziki, arreta berezia jarriko zaie jarduketari, azken buruan, horiek hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo ingurunearen eraldaketa nabarmenak eragin baditzakete, baita lekuko ingurumen-balioetan ondorio esanguratsuak eragin ditzaketen jarduketari ere. Ebazpenaren beste atal batzuetan adierazten den moduan, Azterlanaren atal batean argi eta garbi baloratuko dira Natura 2000 Sareko eremuen kontserbazio-helburuengan eragindako ondorioak.

Planaren proposamenak kontuan hartuta, aurreikusitako jarduketaren garapenetik erator daitezkeen ondorioak esanguratsuenak obra-fasearekin (atmosfera igoeratik partikula-isuriaren kopuru handiagoa, zaratak, dardarak, herritarrei eta faunari eragindako eragozpenak...) eta ustiapen-fasearekin lotuta daude. Honako hauek nabarmendu behar dira:

- Dinamika sedimentarioari eragindako ondorioak: Azterlanak portuko itsas eremuari, iktiofaunari eta Batasunaren intereseko habitatei eragindako ondorioak balioesteko behar adina informazio izan beharko du.
- Ingurune bentonikoari eragindako ondorioak: ondorioek ingurune bentonikoan zer nolako irismena eta garrantzia duten zehazteko, planean aurreikusitako ekintzen ondorioz itsasertzean zein aldaketa gertatuko diren jakin behar da, ditxoa luzatzearen eta itsasontziak atrakatzeko pantalanak instalatzearen ondorioz, hain zuzen ere.
- Abifaunari eragindako ondorioak, obra-fasean batez ere. Eremuan dauden espezie babestuen kudeaketa-planek gaineratzen dituzten kontsiderazioak kontuan hartu eta HAPBak espezie horien ugalketa eta bideragarritasuna arriskuan jartzen ez duela bermatu beharko da.
- Naturagune babestuei eragindako ondorioak; horiek Azterlanaren atal zehatz batean deskribatuko dira. Natura 2000 Sareko guneen balizko eragin eragiteari buruzko balorazioa:

Ebazpenaren beste atal batzuetan adierazi den moduan, HAPBaren jarduera-esparrua guztiz edo zati batean bat dator Natura 2000 Sareari dagozkion zenbait gune babestuekin: HBBE ES0000490 (Mundakako Itsasadarreko eta Ogoño Lurmuturreko itsas gunea), HBBE ES0000144

(Urdaibaiko Itsasadarra), KBE ES2130007 (Urdaibaiko itsasertz eta padurak), KBE; ES2130008 (Urdaibaiko artadi kantauriarrak).

Azterlanak xehetasunez aztertu beharko ditu Natura 2000 Sareko aipatutako naturagune babestuei eragindako ondorioak, eta Natura 2000 Sareko lekuetan eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35.1.c artikuluan adierazten den atal zehatza gaineratu beharko du. Natura 2000 Sareko gune horien kontserbazio-helburuei dagokienez eragindako ondorioak baloratuko dira (abifauna eta ingurune bentonikoa gune horien kontserbazio-helburuen artean sartzen dira, besteak beste).

Gune horietan hautemateko moduko ondorioak eragin ditzaketen proposamen guztiek "ebaluazio egoki" bat egin beharko dute, abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

- Klima-aldaketari dagozkion ondorioak: itsas eremuetan, plangintzak kontuan izan behar duen funtsezko faktore bat da klima-aldaketa.
- Era berean, gasolindegia ditzotik gertu instalatzeak ingurunean eragin ditzakeen ondorioen azterketa xehatua jaso beharko du Azterlanak, ekintza horrek ondorio esanguratsuak sor baititzake.

Horrela identifikatutako ekintza bakoitzerako, espero daitezkeen ingurumen-ondorio gertagarriak deskribatuko dira eta, hala behar denean, ingurumen-ondorio kaltegarri jakin bat gertagaitza dela justifikatu beharko da.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Ingurumen-ebaluazioaren azken faseetan, alternatibarik egokiena hautatu ondoren, hartu beharreko neurri prebentibo, zuzentzaile eta, azken buruan, konpentsatzaileak garatuko dira, identifikatutako eraginak arintzeko; horrela, ingurumen-azterketa estrategikoan bertan ezarritako baldintzetan, HAPBaren aldaketak ingurumenean ondorio esanguratsurik ez duela sortuko bermatuko da.

Ahal den heinean, garapen-tresna zehaztuko da eta bertan proposatutako neurrietako bakoitza ezarriko da.

Edonola ere, neurriek behar bezala bermatu beharko dute, HAPBan aurreikusitako jarduketan ondorioz, Natura 2000 Sareko eremuen kontserbazio-helburuak kolokan jartzen ez direla.

Lurraldearen lotura ekologikoa ziurtatzeko behar diren neurri, arau edo erregulazioak proposatuko dira.

Horrez gain, planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako proiektuak identifikatu beharko dira garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

Azkenik, ingurumen-ebaluazioari buruzko legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legeak) eskatzen duenez, ingurumen-azterlan estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologikoa hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koadernoak» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua Klima-aldaketa arintzeko eta Klima-aldaketara egokitzeko (IHOBE)».

5. Alternatibak aukeratzeko prozesua

Honako hau bilduko da: alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa eta Elantxobeko Portuko HAPBaren helburuekiko bat-etortzea eta proportzionaltasuna justifikatuko dituen, batez ere Ebazpen honetako aurreko ataletan jasotako ingurumen-helburuekikoak.

Ebaluazio horren erreferentzia-esparrua honako hau izango da: ingurumen-alderdiek izan dezaketen bilakaera HAPB aplikatzen ez bada (0 alternatiba), gaur egungo egoeraren eta HAPB garatu ondoren aurreikusten den egoeraren arteko aldeak sakon aztertuz.

Proposatutako soluzioa justifikatu beharko da, eta jarduketan dimentsioari eta hedadurari ez ezik, aipamena egin beharko die horietako bakoitzerako dauden soluzio tekniko guztiei ere. Aukera onena hautatzean irizpide anitzeko azterketa global bat euskarri gisa izan beharko dugu; bertan aintzat hartu beharko dira, alderdi ekonomikoa ez ezik, gizarteari eta ingurumenari dagozkion alderdiak.



Alternatibak baloratzeko prozesu honetan, honako hauek hartuko dira kontuan: baldintza geomorfologikoak, Batasunaren intereseko habitat eta espezieen presentzia, flora eta fauna mehatxatuen guneak, ur-puntuak eta ondare arkeologikoko elementuak, eta paisaiaren gaineko eragina; alternatibak aukeratzeko prozesu honetan zehatz-mehatz hartu beharko dira kontuan horietako bakoitzak Batasunaren intereseko habitatetan eragin ditzakeen ondorioak, Natura 2000 Sareko guneak, natura-balioko zonak, zarata, kutsatu egin daitezkeen lurzorua eta presuntzio arkeologikoko guneak. Azterketa honetan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean behar bada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

Azterlanak azterketa desberdinak proposatu behar ditu; ingurumenaren osagai baliotsuenen gaineko kaltea murriztu beharko dute, batez ere proiektua garatuko den eremuko landaredia naturala eta fauna.

Atala bukatzeko hautatutako aukera argudiatu beharko da, eta, nolana ere, bermatu egin beharko da hautatutako aukera teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela, eta ingurumenaren ondare eta ingurumen osagaiei ahal bezain kalte txikiena eragiteko ahalegina egin beharko da.

Edonola ere, behar bezala justifikatu beharko da Planeko ekintzen garapenak ez dituela kaltetuko Natura Sareko guneak kontserbatzeko helburuak.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du. Programa horretan, Elantxobeko Portuko HAPB aplikatzeak ekarriko dituen ondorioak gainbegiratzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentziako balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak azterketan Ebazpen honetako F ataleko 2. epigrafea betetzeko proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu. Era berean, kasuan-kasuan datuak zein periodikotasun eta metodologiaren bidez jasoko diren azaltzeko proposamen zehatz bat ere jaso beharko du.

7. Laburpen ez teknikoa

Azterlanak aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat izango du; publikoak oro har ulertzeko moduko informazio zehatza izango du, aztertutako alderdi guztiak landuko ditu eta, era berean, informazio grafikoa izango du, dokumentu autoaskia eta azterlanarekiko independentea izan dadin.

G. Hasierako onespeneren ondoren sustatzaileak kontsultatu beharko dituen eraginpeko administrazio publikoak eta publiko interesduna

Ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta interesdunen zerrenda osatzeko, hala xedatzen baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan. Ingurumen-organoak honako hauek kontsultatu ditu:

- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza
- Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia
- Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia
- Euskadiko Itsasertz Demarkazioa
- Elantxobeko Udala
- Gernikako Ekologi Lan Taldea
- Zain Dezagun Urdaibai
- Ekologistak Martxan, Bizkaia

H. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateen, iraupenaren eta epeen definizioa

Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, organo erabakitzaileak, edo, hala badagokio, sustatzaileak (aztergai dugun kasuan organo biak bat datoz), jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, 45 egunez gutxienez.

Era berean, eta aurreko izapidearekin batera, Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du, gutxienez.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua arabera, gehienez ere hamabost hilabetekoa izango da azterketa eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako kontsultak egiteko eta informazio publikoaren prozedura betetzeko epea, irismeneko dokumentu honen erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik aurrera.

1. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesionalei eta goimailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute azterlana, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterlanaren egileak identifikatu behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak izena, abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat izango ditu. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Horiek azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira, administrazioak frogagarri gisa emandako datuak alde batera utzita.

Dokumentazioa aurkezteko, honako jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, bai haien artean baita aurretik aurkeztutakoekin ere, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoan atalak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, atal batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu beharko da, behar bezala georreferentziatua, behar duten ataletan.
5. Plano guztiak kodearekin eta izenburuarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
6. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
7. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek dagokion elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
8. Informazio jakin bat dokumentuko atalen baten ongitze edo zuzentze gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientearen zuzendu nahi den atala mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu ongitzearen edo zuzentzearen ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutak edo ordezkaturak jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, paragrafoak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipaturako jarraibideak betetzen ez badira, tramite gehigarri bat eska daiteke kontraesankorrak edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, horrek prozeduraren ebazpenean dakarren atzerapenarekin.
9. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaera **IKS-eem sistemaren** bidez aurkeztu beharko da, aplikatu behar diren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailaren webgunean eskura daitezkeen fitxak eta formularioak erabilita, zehazki, helbide honetan: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/eu/contenidos/informacion/guia_iks/eu_def/index.shtml



10. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkezten denean, gehienez 30 MB izango ditu eta bilaketak egiteko aukera eman beharko du. Luzera handiagoko dokumentuak zatitu egin behar dira sisteman txertatzeko.
11. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat txertatuko da, adierazitako ataletako bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkeztean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» eremuan adierazi behar denarekin.
12. Dokumentu kartografikoak .pdf formatuan eta .shp formatuan entregatu beharko dira. Plano horiek kode batekin eta izenburuarekin identifikatu beharko dira; halaber, legenda bat izan beharko dute eta adierazitako datuak ongi interpretatzeko beharrezko sinbologia. Shape fitxategiak ongi manipulatu ahal izateko, ez dira 10Mb-tik gorakoak izan behar.
13. Organo sustatzaileak datuak igortzean datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia betetzen dela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. - Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari jakinaraztea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 4a

Ivan Pedreira Lanchas



Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria
Director de Administración Ambiental